

GIZARTE-EKIMENEN IKASTETXEETAN BIRKOKATZEKO ARAUDIA ADOSTU DA

Negoiazio luze baten ondoren, patronalek eta sindikatuok birkokatze araudia adostu dugu joan den ostiralean, ekainaren 11n, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen 2017-2021eko Hitzarmen Kolektiboaren 76. artikuluan jasotako birkokatze-prozesua garatzeko.

Hitzarmen honen eraginpeko zentro guztiek zentroko batzorde bat eratzeko betebeharra dute. Batzorde hori zuzendaritzak, zentroko titularrak eta zentroko langileen ordezkariak osatuko dute, eta urtero, hurrengo ikasturteari begira, birkokatu beharreko langileen (soberakinak) kontratazio-beharren eta aurreikusitako erretiro partzialen zerrendak egingo ditu. Era berean, lanpostu-zerrenda (enpresan dauden lanpostuen zerrenda) adostuko du, eta bi urtean behin eguneratu beharko da.

Zentro guztiek, salbuespenik gabe, ikasturte honetan soberakinak edo lanpostu hutsak izan edo ez, Zentroko Batzordea eratu behar dute, eta 2021eko uztailaren 1a baino lehen bidali behar diote dokumentazio hori guztia Birkokatze Batzordeari. Patronalek eta sindikatuak osatzen dute batzorde hori, eta pertsona bakoitzari lanpostu hutsak esleitzeaz arduratzen da, irizpide hauei jarraituz:

1. Lehenetsuna emango zaio lanpostu hutsak esleitzeari, ahalik eta pertsona gehien birkokatu ahal izateko.
2. Birkokapenerako, itundutako irizpide objektiboen lehenetsuna errespetatuko da (antzinatasuna poltsan eta ondoren antzinatasuna sektorean).

Lanaldi osoko edo partzialeko kontratu mugagabea duten pertsonak, ikasgela ixteagatik lanpostua galtzen badute, ikastetxe bat erabat ixtea edo bertan behera uztea barne, eskubidea izango dute birkokatze prozesu horretan parte hartzeko.

Ikasgela galtzeagatik lanpostua galtzen bada, Ikastetxeko Batzordeak soberakinak sail hauen arabera identifikatuko dira:

- 1. taldea: Haur Hezkuntza – Lehen Hezkuntza
- 2. taldea: Bigarren Hezkuntza - Batxilergoa – Lanbide Heziketa

Hauek dira soberakinak identifikatzeko eta zehazteko irizpideak:

- Lehenik eta behin, ikasgela ixten den taldeko langileak, beren borondatez baja eskatzen badute ikastetxean. (Kasu horretan, nahitaezkoa da birkokatze prozesuan parte hartzea)

- Bigarrenik, ikastetxean antzinatasun txikiena duen langilea, honako irizpide hauen arabera:

- gela itxi den taldekoa ez bada, gehienez taldeen arteko mugimendu bat egingo da soberakina zehazteko.
- aurrekoa ezinezkoa bada, edo ikastetxean antzinatasun txikiena duen pertsona ikasgela itxi den taldekoa bada, talde horren barruan beharrezko mugimenduak egingo dira pertsona hori soberakin gisa identifikatzeko.

Araudi horrek ez du baztertuko taldeen arteko mugimendu gehiago egiteko aukera, baldin eta mugimendu horiek zentroko batzordean adosten badira.